PDF irisgarria
Irakurketa Errazean

Oroimenaren Ibilbidea

Oroimenaren Ibilbidea
Berriozar, Berriobeiti
eta Antsoainetik pasatzen da.
Herri hauek Iruñerrian daude, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Iruñerria non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.

1938. urtean 795 presok
San Kristobal Gotorlekutik
ihes egiten saiatu ziren.
Frankistek preso horietako asko
berriz espetxeratu zituzten gotorlekuan
baina beste asko mendian hil zituzten.

Oroimenaren Ibilbidea
Berriozar, Berriobeiti eta Antsoaingo Udalek
egindako ibilbide bat da.
Ibilbide honek presoak gotorlekutik
ihes egiten saiatu ziren unea gogorarazten du.

Oroimenaren Ibilbideak
8,24 kilometrotako ibilbidea du
eta 11 mugarri ditu.
Hauek dira mugarriak:

- Eskola Zaharra.
- Makinistaren Etxea.
- Uraren Bideko Fosa.
- Espatzetako Fosa.
- Murailoia.
- Alfontso XII.aren Gotorlekua.
- Botilen Hilerria.
- Fusilatuen mendi-hegala.
- Fusilatuen Monolitoa.
- Artikako hilerria.
- Berriozarko hilerria.

2022ko maiatzean
frankismoaren alde dauden zenbait pertsonek
ibilbidean dauden panelei eraso egin zieten.

Hemen Oroimenaren Ibilbidearen
eta bere mugarrien argazkia ikus dezakezu:

